

Artziniega

Aurkibidea

Udalerria: Artziniega

Sarrera



Arabako ipar-mendebaldeko udalerria, Aiaraldeko kuadrillakoa.
(Argazkia [Wikipediatik](#) hartua)

- **Biztanleak:** 1.800
- **Euskaldunak:** %26,0

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **2**
- Zintak: **1**
- Pasarteak: **10**
- Transkribatutakoak: **0**
- Audioak: **0**

- Bideoak: **10**

Proiektuak

- Periferiaren mugak

Hizlariak

Ana Kristi Gutierrez-Barquin



Semea txikia zela, euskara ikastea erabaki zuen eta oso denbora gutxian ikasi zuen euskaraz. [Alberto](#) semearekin batera egin zioten elkarrizketa euskararen transmisioaren inguruko "Periferiaren mugak" proiekturako.

Alberto Martinez Gutierrez-Barquin



Albertok eskolan ikasi zuen euskara, txiki txikitatik hezkuntza-sistema formalean euskara entzun du. [Amak](#) euskaltegietan euskara ikasita ostean, amarekin ere euskaraz hitz egiten saiatzen da. Biak batera elkarrizketatu zituzten "Periferiaren mugak" proiekturako.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Euskararekin izandako harremana (RNG-001/001)

Ana Kristik euskararekin izan duen harremana. Noiz eta zergatik hasi zen euskara ikasten.

2. Euskaltegiko esperientzia (RNG-001/002)

Ana Kristik euskaltegian bizitako esperientzia.

3. Euskara era naturalean ikasia (RNG-001/003)

Albertok euskara era naturalean ikasi zuen. 80ko hamarkadatik aurrerako gazte guztiek euskara dakite.

4. Euskararen egoera Artziniegan (RNG-001/004)

Artziniegako euskararen egoera zein den azaltzen du Albertok. Euskaraz jende askok badaki, baina erabili oso gutxi egiten da.

5. Ohituragatik egiten da erdaraz (RNG-001/005)

Ana Kristik erdaratik euskarara pasatzea oso zaila dela dio, askotan ohitura kontuengatik egiten baitute erdaraz. Albertok euskara "kolokialagoa"ren falta sumatzen du.

6. Sentimendu abertzalea (RNG-001/006)

Euskararekiko jarrera ona dago Artziniegan. Sentimendu abertzalea egoteak asko laguntzen du horretan. Nahiz eta Burgoekin mugan egon, herriak oso euskalduntzat dauka bere burua, Albertoren esanetan.

7. Euskaraz hitz egitea ez da militantzia (RNG-001/011)

Ana Kristirentzat euskaraz hitz egitea ez da militantzia. Albertok herrian euskara ikasteko ikastaroren bat ateratzen den bakoitzean klasea betetzen dela dio. Hala ere, gehienek lanerako ikasten dute.

8. Aiton-amonekin euskaraz (RNG-001/012)

Ana Kristik zaharren egoitzan egiten du lan eta, kasu batzuetan, aiton-amonekin euskaraz egiten du, haien txikitako hizkuntza delako eta horrek konfiantza handiagoa ematen dielako.

9. Gerra aurretik Artziniegan euskaraz irakasten zen (RNG-001/013)

Bere osaba Juanitok zenbakiak eta euskal hitz batzuk bazekizkiela dio Ana Kristik. Gerra aurretik herrian euskaraz irakasten zela dio Albertok.

10. Euskararen etorkizuna Artziniegan (RNG-001/015)

Ana Kristik uste du Artziniegan euskararen etorkizuna Albertok ikusten duena baino hobea izango dela.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-03-02

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com